# II. editoriala / editorial II

ERREDAKZIO BATZORDEA / EL COMITE DE REDACCION

Aldizkari honen aurreko zenbakian Santiago Erasok erredakzio batzorde berria formalki aurkeztu zuenez gero, uste dugu oraingoan komenigarria dela geu ere ZEHARen irakurleei lehenengo pertsonan mintzatzea gure planteamendu, asmo eta ikuspegi berriak azaltzeko.

Diseinua eta kanpoko itxurari egin zaion aldaketa nabariago gelditu da beste aldaketa, konplexuagoa, edukiei dagokiena baino. Horiei buruzkoak izaten dira gure eztabaidak eta denborak juzkatzen dituen bitartean gure asmo onak deituko ditugunak ere.

Zabaldu egin da euskararen presentzia -gero eta beharrezkoago zen-. Baina Euskal Herriaren hizkuntz berezitasunak, beti ez baita bat etortzen nahi genukeen erako elebitasunarekin, testuen edukien nondik norakoa hizkuntza bietan ematea gomendatzen zigun. Artikulu baten eduki osoa ezagutu nahi izan eta itzulpenari ekiteko -eta itzulpen osoa eskaintzeko ahalbiderik ez dugunez-, elebiduna ez den irakurle batek behar duen lehenengo gauza artikulua zertaz den jakitea da. Informazio soil hori da hemendik aurrera idatzi bakoitzaren bukaeran eskainiko dena.

Obra eta autoreari buruzko datuak ematea eta, azken batean, informazioa ugaritzea da hemendik aurrera sortze lan bakoitzaren argazki-artearen erreprodukzioarekin batera hari egiten zaion komentario luze samar batez eskaini nahi dena.

Gazteleraz idatzitako gogoeta testuei eman nahi zaien aztermolde berria da geure buruari egin diogun erronkarik zailena. Bizitzen ari garen mende honen azken hamarkada hain taxu desberdina ari da hartzen soziopolitikan, ekonomian eta alor guztietan lehengoagandik, eta hain erritmo azkarrean, non arteak eta kulturak nola islatzen, azaltzen eta zenbaitetan iragartzen dituen aldaketa horiek aztertzea iruditzen baitzaigu eginkizunik erakargarriena. Gaiak sakonduz mugatzeko bada, ipin dezagun azter lentea arteak gaur egun dioskunean, atzo zioskunari nahitaezko erreferentzia eginez eta etorkizun hurbilaz zer somatzen duen ere. 90. hamarkadako arteari buruzko debatea zenbaki honetan bertan hasten dugu Manel Clot-ek Kassel-en Documenta-z egin duen artikuluarekin.

Orainari lehentasuna emateko ardura horren ordainetan, jadanik historia den artearen alderdiren bati buruzko atal berri batek izango du memoriari ere bere lekua emateko ardura.

Erdialdeko orriek lehengo bidetik segituko dute dokumentuak ezagutzera eta zabaltzera emanez -ARTELEKUn emandako hitzaldiak, artisten idazlanak, beste argitalpenetatik aukeratutako testuak-, duten hizkuntza edo zirkulazio eremu urriagatik argitara gabe geldituko liratekeenak.

Bukatzeko, datorren zenbakitik aurrera atal berri bat azalduko da gure inguruneko artistaren baten obrari eskainia, tailerrera egindako bisita baten kronika edo, lehenengo etapan emakumezko eskultoreei eskainiko zaiena. Zergatik emakumezko eskultoreak?, esango du batek, bere artean, arrazoiarekin. Bada, emakumezko eskultoreen benetako loraldi bat ari delako gertatzen, eta ez bakarrik hemen; eta ezagutzera eman nahi dizkizuegu. Nolanahi ere, komentario monografikoa horiek egiten zaizkien artisten aukeraketa aldatuz joango da noizbehinka.

Tras la presentación formal del nuevo comité de redacción que en el número anterior hizo Santiago Eraso, creemos conveniente ahora dirigirnos en primera persona a los lectores de ZEHAR para hablarles de nuestros planteamientos, intenciones y distintos enfoques.

Que el diseño y su aspecto formal han cambiado ha quedado más palpable que el otro cambio, más complejo, que afecta a los contenidos. Sobre ellos versan nuestros debates y las que a la espera de que el tiempo las sancione llamaremos nuestras buenas intenciones.

Se ha ampliado -venía siendo necesario- la presencia del euskera. Pero la peculiaridad lingüística del País, que no siempre coincide con el deseado bilingüismo, aconseja proporcionar además pistas del contenido de los textos en las dos direcciones. Para poder desear conocer el contenido íntegro de un artículo y emprender su traducción, cosa que no estamos en condiciones de ofrecer, lo primero que necesita un lector no bilingüe es saber de qué se trata. Esta somera información es la que en lo sucesivo se ofrecerá al final de cada escrito.

Proporcionar datos sobre la obra y su autor, ampliar la información en definitiva, es lo que también pretende el comentario más o menos extenso que acompaña desde ahora a la reproducción de la fotografía-arte.

El reto más comprometido que nos hemos fijado es el nuevo sesgo que deseamos que tome el texto de reflexión en castellano. Esta última década del siglo que estamos viviendo va adquiriendo en los aspectos sociopolíticos, económicos y de todo orden tintes tan diferentes de la anterior y a un ritmo tan rápido, que la manera en que el arte y la cultura reflejan, explican y hasta en ocasiones anuncian estos cambios se nos presenta como el campo de estudio más atractivo que podamos acotar. Pues de acotar profundizando se trata, coloquemos la lente de análisis en lo que el arte nos dice hoy, por referencia obligada a lo que nos decía ayer y por lo que pueda estar prefigurando de un futuro cercano. El debate en torno al arte de los 90 se abre ya en este número con la interpretación que de lo que ha sido la Documenta de Kassel nos ofrece Manel Clot.

Como contrapartida a esta preferente preocupación por la actualidad, una nueva sección sobre algún aspecto del arte que ya es historia se encargará de que también esté presente la memoria.

Las páginas centrales continuarán la línea de difundir documentos -conferencias dadas en ARTELEKU, escritos de artistas, textos seleccionados de otras publicaciones- que por motivo del idioma o de su restringida circulación permanecerían de otro modo en parte inéditos.

Para terminar, desde el próximo número aparecerá una nueva sección dedicada a la obra de una/un artista de nuestro entorno, una especie de crónica de una visita al taller, que en una primera etapa estará dirigida a jóvenes escultoras. ¿Por qué jóvenes escultoras?, pensará cada cual con razón. Porque se está produciendo, y no solo aquí, una verdadera floración de escultoras de gran interés, a cuyo conocimiento deseamos contribuir. En cualquier caso, la selección de artistas a los que se dedicará estos comentarios monográficos irá variando periódicamente.